URDULIZKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKOR BERRI BATEN BIDEZ URDULIZKO ARAU SUBSIDIARIOAK LURZORUARI ETA HIRIGINTZARI BURUZKO 2006KO EKAINAREN 30EKO 2/2006 LEGERA EGOKITZEKO ZERBITZUAK PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

EDUKIAREN AURKIBIDEA

EDUKIAREN AURKIBIDEA 1
1.-KONTRATUAREN HELBURUA. 1
2.- BALDINTZEN PLEGU HONEN IRISMENA 1
3.- ARAU ESPARRUA. 2
4.- HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRAREN DOKUMENTUEN EDUKIA 2
5.-PLEGUAK EZARRITAKO DOKUMENTUEN EDUKIAREN GARAPENA 4
6.- FASE BAKOITZAREKIN LOTUTAKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO FORMATU 27
7.- IDAZKETA TALDEAREN OSAERA. 29
8.- IDAZKETA TALDEAREN BETEBEHARRAK. 30
9.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO BALDINTZA GISA BETE BEHARREKO HIZKUNTZA IRIZPIDEAK 31
10.- UDALAK EMANDAKO DOKUMENTAZIOA. 33
11.- IDAZKETA TALDEAREN ETA UDALAREN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA HARREMANAK 33
12.- DOKUMENTUAREN JABETZA. 34
13.- ESKUBIDEEN LAGATZEA ETA ERABILERA. 34
14.-ORDAINSARIAK 34
15.- ORDAINTZEKO MODUA. 34
16.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK. 35

1.-KONTRATUAREN HELBURUA..

Kontratuaren helburua da URDULIZKO Udalari Laguntza Teknikorako Zerbitzuak eskaintzea, udalerriko Arau Subsidiarioak lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legera egokitzeko, URDULIZKO Hiri Antolamendurako Plan Orokor berriaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen Bigarren Xedapen Iragankorra betetzeko.

Egun indarrean dago URDULIZKO Plangintzaren Arau Subsidiarioen Testu Bategina, 2000ko martxoaren 31ko 180/2000 Foru Arauaren bidez behin betiko onartu zena eta 2002ko uztailaren 24ko 142. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (aurrerantzean, BAO) argitaratu zena. Arau Subsidiario horiek halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruei buruzko 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen xedapenetara eta Euskal Autonomia Erkidegoan aplikagarriak diren garapeneko xedapen eta araudi bateragarrietara egokitu behar dira. Lanak egiteko udalbatzaren hitzarmenak bete beharko dira eta Udaleko Zerbitzu Teknikoek eramango dute zuzendaritza teknikoa.

Kontratuaren xedearen barruan sartzen da, gainera, ingurumeneko inpaktuaren adierazpen bateratua egiteko ingurumeneko legediak ezartzen dituen prozedurak, azterketak eta dokumentuak egitea, Plan Orokorraren idazketaren tramitazio-prozesu osoan zehar aholkularitza juridiko eta teknikoa eskaintzea eta udaletxean inplikatutako administrazioekin egiten diren bileretara edo beharrezkoak diren aurkezpen publikoetara joatea, zein herritarrentzako arreta eskaintzea.

Kontratuaren xedearen barruan sartzen da URDULIZKO udal-mugartearen hiri-antolamendu integrala. Mugarteak 7,51 KM2, inguruko lurralde-hedapena du eta biztanleria 5.789 pertsonakoa da gutxi gorabehera.

Helburua da udalerriari plangintza orokorra egiteko tresna bat eskaintzea, egungo koiuntura sozial, ekonomiko, kultural eta urbanistikora egokituta, aplikagarria den legediaren arabera, eta, zehazki, indarrean dagoen lurzoruari eta hirigintzari buruzko legedia betez. Halaber, gizonen eta emakumeen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatuko da.

Herritarrek plana idazteko eta onartzeko fase bakoitza behar bezala uler dezaten bermatzeko, saio parte-hartzaileak egingo dira eta idazketa-taldeak bermatuko du aurkezpenerako beharrezkoa den dokumentazio guztia.

2.- BALDINTZEN PLEGU HONEN IRISMENA

URDULIZKO Hiri Antolamenduaren Plan Orokor berriaren bidez udalerriko arau subsidiarioak 2/2006

Legera egokitzeko lanak idazteko prozesuan zehar kontuan izan beharreko faseak ezartzen ditu baldintzen plegu honek.

Lanaren faseak ezartzeaz gain, fase bakoitzeko dokumentuen eduki materiala, egiteko prozesuan eta herritarren eztabaida publiko eta parte-hartzailean bete beharreko denbora-epeak eta udalerriko hiri-antolamenduan interesatuta dauden erakundeak ere jasota daude bertan.

Faseen definizioa eta dokumentuen edukia ezartzeko garaian kontuan hartu dira hirigintzako legediak eta ingurumeneko legediak ezarritako eskakizunak, etorkizuneko Plan Orokorreko edukiak guztiz errespeta dezan horietan ezartzen dena.

Halaber, aurretik adierazitako lanak egiteko prozesu osoan zehar idazketa-taldeak egin beharreko Udalbatzaren aholkularitza-prozesua ezartzen da plegu honetan.

Herritarrek plana behar bezala uler dezaten bermatzeko, saio parte-hartzaileak egingo dira eta idazketa-taldeak bermatuko du aurkezpenerako beharrezkoa den dokumentazio guztia.

3.- ARAU ESPARRUA.

URDULIZKO Hiri Antolamenduaren Plan Orokor berriaren bidez udalerriko arau subsidiarioak 2/2006 Legera egokitzeko lanak egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruei buruzko 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legea eta Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen 2015eko urriaren 30eko 7/2015 Lege Errege Dekretua, zein lurraldea antolatzeko tresnak eta hiri-antolamendurako tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen 2020ko martxoaren 24ko 46/2020 Dekretua izan behar dira kontuan, baita hiri-araudiari buruzko legezko testuak eta arauak ere.

Aipatutako hirigintzako araudian ageri diren xedapenez gain, hirigintzan eta hortaz Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren betebehar propioan eragin zuzena edo zeharkakoa duten askotariko xedapenetan ezarritakoa ere bete beharko da.

4.- HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRAREN DOKUMENTUEN EDUKIA

Plan Orokorraren eduki substantiboa lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 61. artikuluan edo hura ordezten duen beste edozeinetan ezarritakora egokituko da, xedapen teknikoen plegu honetan egingo diren ñabardura eta zehaztapenekin.

Legediak ezartzen duen Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren izaeraren hiri-antolamenduaren eduki

propioaz gain, ingurumen-legediak plan ororen prestaketa egituratzen duen faseetan egin beharreko dokumentuak jaso beharko ditu Plan Orokorrak.

Alde horretatik, kontratatzaileak etengabeko harremana izan beharko du administrazio eskudunekin ingurumenaren arloan, Plana egiteko prozesuan zehar egon daitezkeen eskakizun guztiei erantzuteko.

Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren txostenak igortzeaz arduratzen den ingurumeneko organoak hala eskatuta sektoreko azterketa espezifikoak egin behar badira, hala nola uholde-arriskuen estatistikak, azterketa akustikoak eta beste, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azterketaren barruan hartuko dira horiek kontuan, eta, hortaz, ez dute kontratazio independenterik izango. Halaber, Ingurumen Ebaluazioaren prozeduraren barruan sartuko dira erkidegoko araudiak, hau da Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun energetikorako 2019ko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak, eskatzen dituen Jasangarritasun Ekonomikoaren Azterketaren alderdiak.

Hiri Antolamendurako Plan Orokor berriaren bidez udalerriko arau subsidiarioak 2/2006 Legera egokitzeko lanak egiteko ezarritako fase bakoitzari dagokion atalean zehaztuko da dokumentuen edukia eta irismena, eta araudi aplikagarrian (estatukoa, erkidegokoa, aldundikoa...) horretarako ezarritakoa errespetatuko da.

Alde batetik, udalerriko hirigintzan genero-ikuspegia eta gizon eta emakumeentzako aukera-berdintasuneko printzipioak txertatzeari buruzko azterketa bat egingo da, eta atal propio batean jasoko da berariaz. Bestalde, inpaktu linguistikoaren ebaluazio-txostena egingo da.

Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Kutsadura Akustikoari buruzko 2012ko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritakoa kontuan hartuko da, udalerriaren zonifikazio akustikoa, inpaktu akustikoaren azterketa eta, hala badagokio, aipatutako Dekretutik eratorritako ekintza-planak zein kutsatutako lurzoruei buruzko araudia barne.

Planaren fase desberdinetako dokumentu guztiak euskaraz eta gaztelaniaz idatzi beharko dira, baita idazketa-taldeak herritarrei zuzenduta egiten dituen txosten, erakusketa- eta hedapen-dokumentu, idatzizko komunikazio eta bestelako dokumentu guztiak ere. Dokumentu guztietan, irudien eta hizkeraren erabilera egokia eta ez sexista bermatuko da, indarrean dauden xedapenak eta araudia betez.

Halaber, fase bakoitzaren kopia egin beharko da formatu informatikoan, plegu honetako FASE BAKOITZAREKIN LOTUTAKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO FORMATUA atalean xedatutakoaren arabera.

5.-PLEGUAK EZARRITAKO DOKUMENTUEN EDUKIAREN GARAPENA

SARRERA.

Plan Orokorraren lanak idazteko ezarritako faseen hurrengo azpi-ataletan, fasea osatzen duen dokumentu bakoitzarentzako izaera kontzeptuala eta gutxienekoak ezartzen dituen dokumentuen edukia adieraziko da.

ERAKUNDE ESLEIPENDUNAK EGIN BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

Lanak fase hauek izango ditu eta fase horietan hainbat zeregin izango dira eta dokumentu hauek egin beharko dira:

-1. fasea. Herritarren Parte Hartze Programa eta Hasierako Hitzarmena
-2. fasea. Hirigintzako informazioa eta Plan Orokorrean duen eragina
-3. fasea. Aurrerakina eta Hasierako Dokumentu Estrategikoa egitea.
-4. Fasea: herritarren parte-hartzea aurrerakinaren edukiaren gainean, ingurumeneko azterketa estrategikoaren alkatearen dokumentua eta plan orokorra egiteko irizpideak eta helburuak ezartzea.
-5. fasea. Plan Orokorra eta Ingurumeneko Azterketa Estrategikoa egitea.
-6. fasea. Udaleko Plan Orokorraren edukiaren hasierako onespena eta herritarren parte-hartzea.
-7. fasea. Behin-behineko onespenerako dokumentua.
-8. fasea. Behin betiko onespenerako dokumentua.
-9. fasea. Bide administratibotik jarritako helegiteak.

Fase bakoitzean dokumentuen edukia eta irismena zehaztuko da, eta lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen "Dokumentazioa" 62. Artikuluan horretarako ezarritakoa errespetatuko da. Lanen esleipendunaren betebeharra izango da plegu honen edukia betetzea. Halaber, kontuan hartuko da premiazko neurriei buruzko 2008ko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretua eta hirigintzako estandarren 2012ko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretua.

Kontratuaren edukiaren barruan sartuta dago planteatutako arloak aztertzeko edo azaltzeko beharrezkoak diren txosten eta dokumentu guztiak egitea, bai udalbatzak eskatutakoak, bai idazketa-taldeak propio proposatutakoak. Halaber, beharrezko den bilera, hitzaldi eta aurkezpen guztietara joan beharko da, eta dokumentua egiteko prozesuarekin lotutako lekualdaketen, dieten eta beste edozein gasturen kostuak barne egongo dira.

1. FASEA: HERRITARREN PARTE HARTZE PROGRAMA ETA HASIERAKO HITZARMENA

HAPO egiteko, beharrezkoa izango da parte-hartze publikorako prozesua hasierako faseetatik. Horretarako, enpresa esleipendunak Herritarren Parte Hartze Programa bat egingo du, eta, bertan ezarritakoaren arabera, laguntza teknikorako lanak egingo ditu udal-eragileekin, elkarteekin eta talde sozialekin, kulturalekin eta kirol-arlokoekin, sektore profesionalekin, sindikatuekin, interesatutako pertsonekin eta abarrekin egin beharreko bileretan. Egin beharreko lanen barruan dago herritarrei HAPOren izaera propioari buruzko aldez aurretiko informazioa ematea.

Enpresa esleipenduna arduratuko da laguntza telematikoa emateaz, sortzeaz eta mantentzeaz, ahalik eta parte-hartzerik handiena egon dadin, eta, halaber, webgune bat sortuko du dokumentazioa txertatzeko, ekarpenak egiteko, informazioa trukatzeko eta abarrerako.

Enpresa esleipenduna arduratuko da herritarren parte-hartze prozesutik ateratako informazioa, dokumentuak, proposamenak eta abar jasotzeaz eta HAPOren dokumentuetan eta EAEkoetan txertatzeaz.

Plan hau egiteko garaian gauzatu beharreko parte-hartze publikorako proposamena egiteko, parte-hartzea planteatzeko kontuan hartu behar diren helburuei eta pertsona edo erakundeei buruzko hurrengo abiapuntua izan beharko da kontuan,

- Urdulizko Udalak erabaki du udaleko plangintza berrikustea, eta horretarako, uste du lehentasunezkoa dela datozen urteetarako udalerriaren hiri-kudeaketarako politiken ikuspegi koherentea eta emaitza egonkorrak lortzeko oinarri estrategikoak ezartzea.
- Prozesuak gogoeta-prozedura bat izango du eta udalerriko errealitate sozio-urbanistikoaren, ekonomikoaren eta ingurumenekoaren azterketa partekatu eta adostua egingo du, baita aurrerapen- eta hobekuntza-neurriena ere.
- Plan Orokorra idazteko enpresa esleipendunak, lan honekin hasteko, udaleko eztabaida eta eztabaida sozial zabala hasteko beharrezko mekanismoak proposatu beharko ditu, eta nahi den udalerri motari, proposatzen den garapen-ereduari eta apustu egin den etorkizunari buruzko gogoeta batean oinarritu beharko da.
- Ildo horretatik, ikuspegi parte-hartzaile argia izan beharko da, kulturako, kiroletako eta ekonomiako kolektibo sozialetako herritarrak inplikatuz, besteak beste.
- Horretarako, dagoeneko existitzen diren foroak aprobetxatu beharko dira, hala nola biztanleria-taldeak eta -sektoreak eta ekonomikoak, auzoetako asanbladak, elkarteak, udal-politikako ordezkariak eta udalerriko bizitzan inplikatutako teknikariak. Horrez gain, beste foro batzuk jarri beharko dira abian (sektore-batzordeak edo bestelakoak) eta horien bidez udalerrian bizi diren pertsonen eta eragileen lankidetza aktiboa eskatuko da, parte-hartzea sustatzen duten pertsonak izango baitira herrira hurbilduko direnak parte-hartze handiagoa bultzatzeko.

PROZESU PARTE HARTZAILE OPTIMOA LORTZEKO METODOA ZEHAZTEA.

Prozesu parte-hartzaileak helburu hauei erantzun beharko die:
Komunikazio - Informazioa
Parte-hartzea - Gogoeta
Kontsulta - Eztabaida
Itzultzea - Komunikazioa

Zehaztutako minimo horietatik abiatuta, plana egiteko prozesuan herritarren parte-hartzerik ahalik eta handiena lortzeko egokiak iruditzen zaizkion metodologia eta lan-materialak jarri beharko ditu enpresa esleipendunak.

Halaber, enpresa bakoitzak planteatzen duen parte-hartzearen proposamena baloratzeko garaian, aukera dago udalak pleguetan egindako hasierako plangintzarentzako hobekuntzak proposatzeko.

HAPO egiteko, beharrezkoa izango da parte-hartze publikorako prozesua hasierako faseetatik. Horretarako, enpresa esleipendunak laguntza teknikoa eskainiko du udal-eragileekin, elkarteekin, gizarteko, kulturako eta kiroleko taldeekin, sektore profesionalekin, sindikatuekin, interesatutako pertsonekin eta abarrekin egin beharreko bileretan.

Enpresa esleipenduna arduratuko da HAPO zabaltzeko beharrezkoa den material guztia exekutatzeaz eta diseinatzeaz (panelak, eskuorriak, aurkezpen digitalak, infografiak, etab.), herritarren parte-hartze prozesutik eratorritako informazioa, dokumentuak, proposamenak eta abar jasotzeaz eta Plan Orokorreko dokumentazioan txertatzeaz ere.

Publikoari azaltzeko saioetan, jorratzen den gaiari buruzko azalpen xehea emateko gai den enpresa esleipenduneko pertsona bat egon beharko da gutxienez eta, ondoren, publikotik egin diren galderetan parte hartu eta erantzun beharko ditu. Halaber, euskararen eta gaztelaniaren erabilera bermatu beharko da prozesu osoan zehar, udalak zehaztutako irizpide linguistikoak aplikatuz.

Dokumentua zabaltzeko jarduketa zehatzak, lan-saioak edo foroak ezarriko dira fase bakoitzean, osoko bilkuran onartutako Herritarren Parte Hartze Programaren arabera. Halaber, proposatutako jarduketa bakoitzaren planning bat eta deskribapen-memoria bat egingo da eta fase bakoitzaren deskribapenean adierazitako parte-hartze mugarri guztiak izan beharko ditu. Gainera, dokumentu horrek prozesu parte-hartzailearen emaitzen eta emaitza horiek dokumentu teknikoetan txertatzearen tratamenduari buruzko azalpenak jasoko ditu.

EPEA

Dokumentu hori **HILABETE BATEKO (1)** epean aurkeztuko da gehienez ere kontratua sinatzen den egunetik hasita, eta udalbatzak berariaz onartu beharko du horretarako deitutako osoko bilkuran.

HASIERAKO HITZARMENA

Herritarren Parte Hartze Programa onartu ondoren, Plan Orokorraren formulazioaren hasiera adostuko da, eta Programarekin batera joan beharko da.

Dokumentua idaztea adostu ondoren, babes zibilaren, ingurumenaren, kultur ondarearen eta ingurune naturalaren gaineko konpetentziak dituzten Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren organoei existitzen diren arriskuei buruzko informazioa eta ingurumeneko, kultur ondarearen babeserako eta errespetatu beharreko ingurune naturaleko baldintzatzaileak eskatuko zaizkie, eta informazio hori BI (2) HILABETETIK beherako epean emango da, justifikazio tekniko eta juridikoarekin batera.

Udalak txosten horiek jaso ondoren, idazketa-taldeko pertsonei emango zaizkie.

2. FASEA: HIRIGINTZAKO INFORMAZIOA ETA PLAN OROKORREAN DUEN ERAGINA

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 86. artikuluan ezarritakoaren arabera, Urdulizko Udalak Plan Orokorra idatzi aurreko azterketak egin eta onartu ahal izango ditu, hirigintzako informazioa bildu eta diagnostikoak eta hasierako helburuak proposatu.

A) INGURUMENEKO ERAGINEN, ANTOLAMENDURAKO PLANEN ETA LURRALDEKO SEKTORE PLANEN AZTERKETA ETA PLAN OROKORREAN DUTEN ERAGINA

Lurralde Plangintzaren eta Sektorekoaren azterketa

Fase honetan, Bilbo Metropolitarraren Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren eta udalerrikoa baino irismen handiagoa duten lurralde-eraginak izateagatik udal-mugarteari zuzenean edo zeharka eragiten dioten behin betiko onartutako edo idazteko eta tramitatzeko prozesuan dauden Sektoreko Lurralde Planen azterketa xehea egingo da.

Aurretik aipatutako Lurralde Planen azterketa egiteaz gain, Sektoreko Lurralde Planek Bilbo Metropolitarraren Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialean eragindako efektuak azpimarratuko dira, kontzentrazio handiagoa izateagatik.

Lurralde Planen azterketa egiteko lanen eta Hiri antolamendurako Plan Orokorrarekin dituen loturen laburpen gisa, Bilbo Metropolitarraren Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialari buruzko txosten bat eta udalerriari eragiten dioten indarrean eta prozesuan dauden Sektoreko Lurralde Plan bakoitzaren

txosten bat egingo da

Lurralde Plan Partzialari buruzko txostenak lurralde-loturen eta hiri-garapenaren kuantifikazioaren azterketa xehea izan beharko du, bai bizilekuei, bai jarduera ekonomikoei dagokienez, eta, halaber, Plan Orokorraren gainean ezartzen duen maniobra-tartearen gaineko interpretazio-irizpideak ezarri beharko ditu, etorkizuneko hiri-garapenaren tamaina eta ezaugarriak definitzeko. Halaber, aurreikuspenak gehituko dira, Lurralde Antolamendurako Jarraibideetan ezarritako irizpideen arabera. Egungo arau subsidiarioetan jasotako aurreikuspenarekin eta exekutatzeke dauden bizilekuen eraikinekin alderatuko dira.

Sektore-txostenek hirigintzako antolamendua ezartzeko gaitasunari buruzko lotura berezien azterketa xehea izan beharko dute, modu grafiko argi eta ulergarrian. Azterketa grafiko hori txosten idatzi batekin osatu beharko da, onartuta dauden zein egiteko prozesuan dauden eta onartu ostean Plan Orokorrean eragina izan dezaketen Sektoreko Planen (ibaien eta erreken ertzetako antolamendua, nekazaritza eta basozaintzakoa, errepideena, etab.) lurralde-loturen derrigorrezko araudiaren eta araudi orientatzailearen irismena argitzeko.

Oinarri kartografiko bakarraren gainean eta UTM-ETRS89 koordenadetan definituko dira grafikoki sektoreko planen eraginak.

Etorkizuneko hirigintzako antolamenduak kontuan izan beharreko ingurumeneko askotariko loturen azterketa

Indarrean dagoen lurralde-antolamenduaren azterketari buruzko lanak egitearekin batera, Plan Orokorraren dokumentu propioen edukian eragina duten eta Ingurumeneko Ebaluazio Estrategiaren azterketan kontuan hartuko diren ingurumenaren babeserako errespetatu beharreko lurralde-lotura guztien azterketa grafikoa eta idatzizkoa egingo da.

Horretarako, Lurralde Antolamendurako Jarraibideen edukiaren arabera ezarritako Babes Bereziko Eremu guztiak zein Europako Ingurumeneko Gida Planen arabera eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumeneko eta Lurralde Antolamendurako Sailak zein arloan eskumenak dituen beste edozein administraziok ezarritako irizpideen arabera babestu beharreko espazio berezi guztiak hautemateko beharrezko informazio-lanak egingo dira.

Aurretik adierazitakoa lurraldean eragina duten sektoreko legedietan ezarritako lotura berezien azterketarekin eta zehaztapenarekin osatuko da, behin betiko onartutako edo dokumentua egiteko prozesuan zehar behin betiko onartu edo moldatuko den lurralde plangintzaren loturekin duen harremana esplizitua izan dadin, Lurralde Antolamendurako Jarraibideekin eta Plan Orokorrean eragina duen beste edozeinekin gertatzen den moduan.

Fase horren barruan, halaber, udalerrian zarataren arloan indarrean dagoen legedia eta bere hazkunde-aurreikuspenak aztertuko dira, baina udalerriko planean eragina duen beste edozein lege edo araudi ere. Udalerriak paisaiari eta bere araudi-esparruari, lurzoru kutsatuei eta uholde-arriskuei dagokienez duen egoera aztertuko da.

Lurralde- eta ingurumen-loturen laburpen dokumentua

Aurreko bi azpi-ataletan adierazitakoaren arabera egin beharreko azterketen ondorio eta laburpen gisa, dokumentu bat egingo da Plan Orokorraren antolamendurako- zehaztapen propioak ezartzeko aukerak edo maniobra-eremuak zein diren jasotzeko, eta udalbatzak, eragile sozial guztiek eta interesa duten herritarrek jakiteko.

Hala, asmoa da zehaztapen metodologikoaren oinarriak pixkanaka finkatzen joatea, plan orokorra egiteko prozesuan aurrerapauso seguruak eman ahal izateko, eta ondorengo faseetan dokumentazioa idazteko garaian aurrerapauso seguruak eman ahal izateko irizpide adostuak eta onartuak finkatzeko.

B) URDULIZ ONDOKO UDALERRIEN PLAN OROKORREN AZTERKETA ETA HORIEK DUTEN BALIZKO ERAGINA

Alboko udalerrietako Plan Orokorren azterketa

Urdulizekin mugakide diren udalerrien Plan Orokorrak aztertuko dira, aurreikuspenak egiaztatzeko eta mugetan egon daitezkeen arazoentzako soluzioak bateragarri egiteko, baina batez ere, hainbat gairen gainean egon daitezkeen aukerak ikusteko, hala nola mugikortasuna, generoa, euskara, hornikuntzak, jasangarritasuna, etab.

C) UDAL MUGARTEKO ETXEBIZITZAREN ERABILERAREN ETA JARDUERA EKONOMIKOAREN EGOERAREN AZTERKETA

Etxebizitzari dagokionez

Etxebizitza berrien eta lokalen arau subsidiarioen Behin Betiko Onarpenetik abiatuta udalak esleitutako lizentzia urbanistikoen azterketa egingo da, bakoitzaren erregimena zehaztuz. Azterketa horren barruan sartuko dira halaber etxebizitzen segregaziorako lizentziak.

Informazioa udalerriak etxebizitzaren arloan dituen behar zehatzen azterketa egiteko oinarria izango da, eta arreta berezia jarriko zaie udal-mugartean dauden etxebizitza hutsen kopuruari (etxebizitza libreak eta/edo babes publikokoak).

Lortutako emaitzak Bilbo Metropolitarraren Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialean horri dagokionez adierazitakoarekin alderatuko dira, eta arreta berezia jarriko zaie proposatutako etxebizitzen kuantifikazioari eta Lurralde Antolamendurako Jarraibideei.

Jarduera ekonomikoari dagokionez

Udalerrian ezarritako jarduera aztertuko da, jarduera komertzialak eta lurzoru industrialak barne, baita balizko erabilera horiek har ditzaketen lurzoruak ere. Azterketatik ateratako ondorioak Lurralde Plan Partzialean eta jarduera ekonomikoen Sektoreko Lurralde Planean jasotakoekin kontrastatuko dira.

Fase honetan dokumentua egiteko eta aurkezteko epea **HIRU (3) HILABETEKOA izango da, 1. faseari dagokion dokumentazioa entregatzen den unetik hasita.**

3. FASEA: HASIERAKO DOKUMENTU ESTRATEGIKOA ETA AURRERAKINA EGITEA

Lurralde-plangintzari eta etxebizitzaren eta jarduera ekonomikoen azterketari buruzko informazioa bildu ostean, Plan Orokorraren Aurrerakina egingo da, eta Hasierako Dokumentu Estrategikoa egingo da modu paraleloan. Bi dokumentuak administrazio honek onartutako oinarrien gainean garatuko dira.

AURRERAKINAREN EDUKIA

Idazketa-taldeak udalerrian indarrean dauden hirigintzako tresnei buruz egindako dokumentazio guztia kontsultatu ahal izango du, papereko formatuan eta/edo formatu digitalean, halakorik balego.

Plangintzaren aurrerakinak Urdulizko udal-mugartearen egiturazko hirigintzako antolamenduaren lehen proposamena jasoko du eta dokumentuen edukia honela sistematizatuko da:

1. Hiri-bilakaeraren eta lurzoruaren okupazioaren estrategia.
2. Hautemandako hirigintzako arazo nagusien azterketa eta egoera eta tratamendurako eta ebazpenerako lan-ildo orokorren eta espezifikoen deskribapena.
3. Ingurumena babesteko, natura zaintzeko, eta paisaia eta elementu natural eta artifizialak defendatzeko jarraibideak, batez ere, kultur ondarearekin lotutakoak.
4. Hiri-mugikortasuna garatzeko jarraibideak: trafikoa, errepide-sarea, tren-sarea, oinezkoentzako ibilbideak eta bizikletenak. Zonifikazio akustikoa. Inpaktu akustikoa.
5. Hornikuntzak eta defizita egokitzeko jarraibideak. Hiri-ekipamendua (administratiboa, eskolakoa, osasunekoa, kirolekoa, parkeak eta berdeguneak, etab.), ibilgailuen aparkalekuei erreferentzia berezia

eginez.

6. Egungo etxebizitza-egoerari buruzko diagnostikoa eta jarraibideak; ohiko etxebizitza, bigarrena eta hutsa.

7. Ingurumen Azterketa Estrategikoa.

8. Zaraten mapa.

9. Udal-mugartearen kalifikazio orokorra, mugarte osoa eremutan banatuta, eta erabilera publiko eta pribatuko eremuak berezita, eta, horien artean, Sistema Orokorren sarearen eremu propioak direnak bereizita.

10. Babes publikorako erregimen baten mende dauden etxebizitzen estandarrak eta zenbatekoak betetzen direla bermatzeko beharrezko zehaztapenak, esaterako, zuzkidura-bizitegietarako eta tokiko zuzkiduretarako erreserbak.

11. Lurzoruaren sailkapena hiri-lurzoru moten arabera, hau da, lurzoru urbanizagarria eta ez urbanizagarria. Hiri-lurzoru finkatuaren lehen eta behin-behineko mugaketa egingo da eta sektoreko eta, hala badagokio, sektorerik gabeko hiri lurzoruaren kategoria zehaztuko da.

12. Kalifikazio orokorraren eta lurzoruaren sailkapenaren laburpen-taula.

13. Aurreko ataletan ezarritako antolamenduaren edukiaren memoria deskribatzailea eta justifikatiboa.

14. Proposamena alboko udalerrietako Hirigintzako Araudiarekin bateragarri egitea.

15. Lurzoruaren udal-erreserbak Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 119. artikuluaren arabera mugatzea.

16. Zeharkako gaien diagnostikoa eta jarraibideak, hala nola:

- Genero-ikuspegia.
- Klima-aldaketa eta bere egokitzapena.
- Osasun: haurtzaroa, jarduera fisikoa, zahartzaroa.
- Familia.
- Berdintasuna.
- Dibertsitatea.
- Inklusibitatea.
- Nomenklatura-toponimia.
- Larrialdiak.
- Kutsatutako lurzoruak.
- Irisgarritasuna.
- Mugikortasuna.
- Jasangarritasun energetikoa.
- HAPO egiteko prozesuan zehar indarrean dagoen legediaren arabera derrigorrezkoak diren guztiak, baita eguneraketak eta lege-aldaketentzako beharrezko egokitzapenak ere.

17. Azterketa bereizgarriaren beste xede-elementu batzuk, hala nola egun garapena sustatzen ez duen egoera batentzako soluzio zehatzak behar dituzten udalerriko puntuak, eta, hala badagokio, dagoeneko aurreikusitako beste garapen batzuekin bateragarriak izan behar dira.

HASIERAKO DOKUMENTU ESTRATEGIKOA

Lurralde-antolamenduko planak eta antolamendu-tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen 2020ko martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuko 26. artikuluaren eta Ingurumeneko Ebaluaziorako 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 18. artikuluaren arabera, Plan Orokorreko organo sustatzaileak Hasierako Eskaera bidaliko dio ingurumeneko organoari sektoreko legediak eskatzen duen dokumentazioarekin batera, Ingurumeneko Ebaluazio Estrategikoaren prozedura has dezan.

Fase honetan, indarrean dagoen legediaren arabera eskaera hori egiteko beharrezkoa den dokumentazioa egingo da. Gainera, sektoreko eta lurraldeko administrazioek eta administrazio-batzordeek EAEko Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 90.1 artikuluan definitutako kontsultari erantzunez jakinarazitakoa txertatuko da.

Ingurumeneko organoak ikusten badu aurkeztutako dokumentazioaren edukia ez dela nahikoa planaren Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa egiteko, idazketa-taldeko pertsonen betebeharra izango da ingurumeneko organoak eskatzen duen dokumentazioa egitea gehienez ere HAMAR (10) EGUNEKO epean edo eskakizunean ezartzen den epean.

EPEA

Idazketa-taldeko pertsonek planaren aurrerakina eta Hasierako Dokumentu Estrategikoa aurkezteko izango duten epea **ZAZPI (7) HILABETEKOA** izango da aurreko faseko dokumentazioa entregatzen denetik (hirigintzako informazioaren fasea eta Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean duen eragina).

Epe hori amaitzean, alkatetzarekin eta/edo gobernu-taldearekin eta ondoren Hirigintzako Batzordearekin egindako bileran, enpresa kontratistak azaldu eta entregatuko du Plan Orokorraren Aurrerakinean jasotako dokumentazioa.

Hala badagokio, osoko bilkurak aurrerakinaren dokumentua entregatuko du gehienez ere **ASTE BATEKO (1)** epean, dokumentua eztabaidatzeko saio informatibotik hasita.

4. FASEA: HERRITARREN PARTE HARTZEA AURRERAKINAREN EDUKIAN, INGURUMENEKO AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMENARI BURUZKO DOKUMENTUA ETA PLAN OROKORRA EGITEKO IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK EZARTZEA

PUBLIKOARI AURKEZTEKO EPEA

Idazketa-taldeko pertsonek aurrerakinaren dokumentua entregatzean, Hasierako Dokumentu

Estrategikoa barne, udalak aztertu egingo du eta udal-zerbitzuek txostenak egin ostean, publikoari aurkeztea adostuko du, hala badagokio, **BI (2) HILABETEKO** epean.

Fase honetan, Aurrerakinaren dokumentua eta Hasierako Dokumentu Estrategikoa bidaliko zaizkie alboko udalerrietako udalei ezagutu ditzaten, eta, hala badagokio, iradokizunak aurkez ditzaten.

Udal-administrazioak, aurrerakineko aurkezpen publikorako akordioarekin batera, bertan behera utzi ahal izango du arlo edo erabilera jakin batzuetarako lizentziak ematea, baina bertan behera uzte horrek ezingo du urtebeteko epea gainditu.

Aipatutako epean zehar, Herritarren Parte Hartze Programaren barruan, aurreikusitako parte-hartzea gauzatuko da aurrerakinaren edukiari buruzko material dibulgatiboaren eta publikoaren azalpen-saio irekien bitartez, baita Herritarren Parte Hartze Programan jasotako beste edozein mekanismoren bidez ere.

Publikoari aurkezteko fasean zehar, derrigorrezkoak diren sektore-txostenak jasoko dira.

HERRITARREN PARTE HARTZE PROZESUAREN AURRERAKINA ETA AZTERKETA PUBLIKOARI AURKEZTEKO EGINDAKO IRADOKIZUNEI ERANTZUTEKO EPEA

Idazketa-taldeko pertsonek txosten bat igorriko dute egindako iradokizunentzat publikoki aurkezteko epean zehar eta, halaber, laburpen-txosten bat igorriko dute publikoarekin egindako saio irekietan jasotako iritziekin, eskumena duen hirigintzako udal-organoak jakin dezan eta kontuan har dezan, Plan Orokorreko dokumentazioa egiteko prozesuan errespetatu beharreko irizpideak eta helburuak ezartzeko.

Aipatutako txostenak igortzeko epea **HILABETE ETA ERDIKOA (1,5)** izango da, publikoari aurkezteko epearen amaiera-eguna jasotzen denetik hasita.

INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMENAREN DOKUMENTUA

Udalak Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren Irismenaren gaineko Dokumentuaren eskaera egingo dio dagokion ingurumen-organoari, Hasierako Dokumentu Estrategikoarekin eta Planaren Aurrerakinarekin batera. Ingurumeneko organoak eragindako administrazio publikoen eta pertsonen esku jarriko du aurrerakina kontsultak egiteko, HILABETE BATEKO (1) epean.

Ingurumeneko organoak Ingurumen Azterketa Estrategikoaren irisimenaren gaineko dokumentua gehienez ere HIRU (3) HILABETEKO epean egin eta komunikatuko du, hasierako eskaera jaso eta kontsulten erantzunekin batera udalari igortzen dizkionetik hasita. Ingurumeneko organoaren eta

udalaren egoitza elektronikoan argitaratuko da.

UDAL HITZARMENA EGITEA, PLAN OROKORRA IDAZTEKO OINARRIA IZANGO DIREN IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK FINKATUZ

Idazketa-taldeko pertsonek herritarren iradokizunei eta parte-hartzeari buruzko egindako txostenen, alboko udalerriei egindako kontsulten eta Ingurumen Azterketa Estrategikoaren irismenaren dokumentuaren berri izatean eskumenak dituen udal-organoak dagokion hitzarmena egingo du Plan Orokorra idazteko irizpideak, eta helburuak ezartzeko eta idazketa-taldeko pertsonei jakinaraziko die.

5. FASEA: PLAN OROKORRA ETA INGURUMENEKO AZTERKETA ESTRATEGIKOA EGITEA

HASIERA

Idazketa-taldeko pertsonek Plan Orokorraren dokumentua egiterako garaian errespetatu beharreko irizpide eta helburuen udal-hitzarmena jasotzean, Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren dokumentu propioa egiteko fasea hasiko da.

HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORREKO DOKUMENTAZIOAREN EDUKIA

Plan Orokorreko dokumentazioa euskaraz eta gaztelaniaz idatziko da eta zehatz bete beharko du Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 61 et 62 artikuluetan ezarritakoa, baita 53 eta 56 artikuluek egiturazko hiri-antolamenduaren edukiaren garapenari eta xedapenari buruz ezarritakoa, zein egiturazko antolamenduaren eta xehatuaren edukiari buruzko alderdiak ezartzen dituzten Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen gainerako artikuluetan ezarritakoa ere.

Jarraian, lizitaziora aurkezten diren pertsonek egiten dituzten eskaintzetan zehatzago osatu eta garatu beharreko Plan Orokorreko dokumentazioaren gutxieneko edukia laburbilduko da.

2/2006 Legearen 62. artikuluak plan orokorretarako legez ezartzen duen edukia sistematizatu ahal izateko, dokumentazio grafikoaren eta idatzizko dokumentazioaren arteko banaketa klasikoa eginez, aipatutako artikuluan ageri diren dokumentuen edukia garatuko dugu. Honela laburbiltzen da:

1. Antolamenduaren memoria informatibo eta justifikatiboa.
2. Hasierako Dokumentu Estrategikoa eta Irismenaren Dokumentua jaso ondoren, Ingurumeneko Azterketa Estrategikoa eta hori HAPOn txertatzearen dokumentu justifikatiboa.
3. Informazio-planoak.
4. Egiturazko antolamenduaren planoak.

5. Antolamendu xehearen planoak.
6. Instalazioen planoak.
7. Hirigintzako arauak.
8. Bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren azterketa.
9. Jasangarritasun ekonomikoaren memoria.
10. Babestu beharreko elementuen eta ondasunen katalogoa.
11. Genero-ikuspegia.
12. Eraikuntzako, hirigintzako eta ingurumeneko ordenantzak.
13. Eraginak euskaran.
14. Kutsadura akustikoaren azterketa, zaraten mapa.
15. Jasangarritasun energetikoari buruzko azterketa.
16. Zeharkako gaiak.

1.-. Antolamenduaren memoria informatibo eta justifikatiboa

Dokumentu hori atal hauetan egituratzen da:

- Plangintzaren gaineko ahalmena eta, ondorioz, proposatutako hiri-antolamenduaren edukia gauzatzea nabarmen baldintzatzen duten elementuak eta aurre existentziak zen diren nabarmentzen duen hirigintzako informazioaren laburpena.
- Aurrerakinaren faseetan egindako eta aurkeztutako antolamenduren proposamenen justifikazioa, bakoitzean proposatutako alternatiben azalpenarekin.
- Alternatibak formulatzean eta aukeratzean egindako prozesuaren deskribapena, herritarren parte-hartzea kontuan izanda. Irizpideak eta helburuak ezartzeko kontuan hartutako planteamenduak.
- Aurrerakinari buruzko herritarren parte-hartze prozesuan zehar aurkeztutako helegiteen eta iradokizunei buruzko laburpena eta iradokizun horiek onartzeari edo baztertzeari buruzko edukiaren azalpena.
- Ingurumeneko Adierazpen Estrategikoa eta hori bera Plan Orokorrean txertatu izanaren dokumentu justifikatiboa.

2. Ingurumeneko Azterketa Estrategikoa eta hori bera Plan Orokorrean txertatu izanaren dokumentu justifikatiboa.

Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren Irismenaren dokumentuaren zehaztapenak kontuan izan beharko dira Ingurumen Azterketa Estrategikoa egitean eta Plan Orokor berria idaztean.

Halaber, irismenaren dokumentuaren zehaztapenak Plan Orokorrean txertatu izanaren dokumentu justifikatiboa egin beharko du idazketa-taldeak.

Idazketa-taldeak Ingurumen Azterketa Estrategikoa egingo du eta Plan Orokorraren Hasierako Onespenaren dokumentuan txertatuko da. Biak publikoki aurkeztuko dira.

Ingurumeneko dokumentazioa egituratzeko indarrean dagoen legedi aplikagarria jarraituko da eta zehaztuko da legedi horretako zer alderdik duten lotura zuzen eta berariazkoa Plan Orokorraren arau-eduki juridikoarekin. Halaber, Plan orokorraren hirigintzako dokumentazioan txertatu izana justifikatuko da.

3.- Informazio-planoak

Informazio-planoek Urdulizko Arau Subsidiarioen dokumentazio eguneratua jasoko dute, Udalbatzak onartutako moldaketen arabera, eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean indarrean dagoen kontzeptuen sistematika jarraituko dute. Hala, egiturazko antolamenduaren eta antolamendu xehearen alderdi propioak bildu eta zehaztuko dituzte.

Exekuzio Unitateen muga eguneratuak dituzten kudeaketa-planoak eta egun indarrean dagoen udal-araudiaren barruan jasotako beste alderdi batzuk gehitu beharko dira, baita horien garapen-egoera ere.

4.- Egiturazko antolamenduaren planoak

Egiturazko antolamenduaren planoek eremu publiko eta pribatu guztiak definituko dituzte udal-mugarte osoa barne hartuz eta eremuak bereiziko dituzte lurzoruaren titulartasunari eta baimendutako jarduerei buruzko irizpide gainjarriei zein sistema orokor publiko edo pribatuko eremuak diren erreparatuz.

Era berean, egiturazko antolamenduaren planoek ezarriko dute ea sistema orokorren sareko eremu jakin batzuk exekuzio-arloetan atxiki edo gehitu daitezkeen, horiek eskuratzeko eta, hala badagokio, exekutatzeko eta kostuak gehitu edo atxikitzen diren eremuetako eraikigarritasun urbanistikoaren pertsona edo erakunde titularren kargu geratzeko.
Halaber, egiturazko antolamenduaren planoetan, lurzoru mota bakoitzaren barruko lursailen definizio grafikoa gehituko da, eta hiri urbanizagarrien kasuan, sektoreko lurzorua edo sektorerik gabeko lurzorua den zehaztuko da. Gainera, lurzoru mota horretan adierazi beharko da, hala badagokio, Plan Orokorraren dokumentazioak zer sektore agintzen dituen eta zein atzeratzen diren Plan Partzialaren antolamendu xehera.

Hiri-lurzoruan, hiri-lurzoru finkatuaren edo finkatu gabearen arteko zehaztapena antolamendu xeherako planoetan zehaztuko da, eta Plan Berezia behar duten hiri-lurzoruko eremuak ere adieraziko dira.

Egiturazko antolamenduak Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 53. artikuluan jasotako zehaztapenak izan beharko ditu gutxienez.

5.- Antolamendu xehearen planoak

Antolamendu xehearen planoek Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 56. artikuluan ezarritako zehaztapen guztiak izan beharko dituzte eta, gainera, Lege horren beste artikulu batzuetan aipatzen diren antolamendu xeheari buruzko zehaztapenak ere jaso beharko dituzte.

Plan Berezirik behar ez duten hiri-lurzoruko eremu guztietan izango da aplikagarria antolamendu xehea eta, gainera, egiturazko antolamenduaren arabera antolamendu xehea Plan Orokorraren dokumentaziotik egin behar dela zehazten den lurzoru urbanizagarriko sektoreen lursailei ere aplikatuko zaie antolamendu xehe hori ere.

Antolamendu xehearen planoen barruan, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 56, 137, 138, 139 eta 140 artikuluetan ezarritako exekuzio-arlo guztien muga ere adieraziko da.
Idazketa-taldearen eta udaleko zerbitzu teknikoen arabera azterketa-xede berezi gisa ezarritako elementuen antolamendu xehearen proposamenak garatuko dira.

6.- Instalazioen planoak

Udal-instalazioen sareak behar besteko xehetasunarekin eta udaleko zerbitzu teknikoek zehaztutako eskalan adieraziko dira, etorkizunean kudeatu eta mantendu ahal izateko. Hasierako oinarri gisa udalak dituenak erabiliko dira:

- Energia elektrikoa.
- Argiteria publikoa.
- Uraren hornikuntza.
- Saneamendua.
- Telekomunikazioak.
- Gas naturala.
- Ureztatze-sarea.
- HHS, beira, kartoia, ontziak, arropa, tresnak eta organikoa.
- Udalerriko mapak.
- Beste batzuk.

7.- Hirigintzako arauak

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 legeak ezarritakoaren eta, hala badagokio, bere garapen-

araudiaren arabera, hirigintzako araudiak ezarri beharko ditu Plan Orokorra bere edukiaren oinarrizko eta lehen mailako elementu gisa aplikatzeari dagozkion xedapen orokorrak. Gainera, zehaztapen hauek izan beharko ditu:

- Lurzoruaren hirigintzako kalifikazioaren erregimena hirigintzako erabilerei, eraikigarritasun fisikoei eta hirigintzakoei eta hirigintzako kalifikazioaren araudiari eta sistematizazioari erreparatuz, egiturazko antolamenduaren eta antolamendu xehearen alderdietan banakatuta.
- Hirigintzako antolamenduari eta bere zehaztapen-erregimenari gainjarritako baldintzatzaileak.
- Plangintzaren exekuzioaren erregimen juridikoa, lurzoruaren sailkapenari, exekuzio juridikoaren erregimenari, eraikigarritasunaren esleipenari eta hirigintzaren eta eraikuntzaren exekuzio-erregimenari erreparatuz.
- Eraikuntzaren erregimena eta lursail eraikigarrien erabilera, eraikuntzako baldintza orokorrak eta hiri-lurzoruan eta urbanizagarrian zein lurzoru ez urbanizagarrian baliabideak ezarrita.
- Plangintzarekin bat ez datozen eraikinen eta erabileren erregimena, ahalbidetutako kategoria desberdinak garatuz, eta kasu bakoitzean baimendutako ekintzak eta erabilerak adierazita.
- Lurzoru ez urbanizagarrian espezifikoki aplikagarriak diren arau urbanistikoak, ingurumeneko babesarekin, paisaiaren babesarekin eta naturaren babesarekin lotutako alderdirik esanguratsuenei erreparatuz, eta, hala badagokio, erabilera ludikoak eta aisialdikok egiteko aukerak kontuan hartuz.
- Kultur ondarea eta ondare naturala babesteko arauak.
- Eraikuntza eta hirigintzako energia berriztagarriei eta jasangarritasunari buruzko arauak. Klima-aldaketa
- Udalerriko mugikortasunari eta bizilagunen arteko bizikidetzari buruzko arauak.
- Arau iragankorrak.
- Gehitzea beharrezkoa den beste edozein.

8.- Bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren azterketa.

Bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren azterketa ahalik eta zehaztasunik handienarekin idatzi beharko da, udalak proposatutako hirigintzako antolamenduaren exekuzioa ezartzeko duen gaitasun ekonomikoa ebaluatzeko eta justifikatzeko.

Bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren azterketan Plan Orokorra egiteko ezarrita dagoen denbora-epea zortzi urtekoa izango da, Plan Orokorra Behin betiko Onartzen denetik hasita.

Eremu eta sektore jakin batzuen exekuziora atxikitzen ez den finantzaketa duten sistema publiko orokorren sareko elementuen exekuzio-kostuen ebaluazio ekonomikoa jasoko du bideragarritasun-azterketak.

Ebaluazio ekonomiko hori, exekutatzeko eskumena duen administrazioaren arabera bereizita, jarraian

adierazitako eskemaren arabera egin beharko da:

- Komunikazioko azpiegituren, trenen, errepideen, oinezkoen eta bizikleten sistema orokorren hornikuntza-sareko elementuak.
- Domeinu eta erabilera publikoko espazio libreen eta berdeguneen sistema orokorren hornikuntza-sarearen elementuak.
- Hezkuntzarako, kulturarako, osasunerako, laguntza-zerbitzuetarako, kirolerako eta administraziorako erabiltzen diren erabilera publikoko ekipamendu kolektiboen eta sistema orokorren hornikuntza-sarearen elementuak.
- Behar berezia duten kolektiboentzako ostatu iragankor eta sozialerako zuzkidura-bizitegien ekipamendu komunitarioaren hornikuntza-sareko elementuak, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 17. artikuluan ezarritakoaren arabera, beharrezkoa izanez gero. Eta betiere gizarte-zerbitzuen zorroaren betebeharrak betez.
- Uraren hornikuntzaren, saneamenduaren, energiaren eta telekomunikazioen zerbitzuen zuzkidurarekin lotutako esku-hartze bereziki garrantzitsuentzako zerbitzu-sare orokorren oinarrizko azpiegiturak.
- Existitzen diren ur-ibilguen gaineko jarduketaren obra publikoak, uholdeen arazoak bideratzeko eta ibilguak babesteko.
- Kutsatutako lurzoruak deskutsatzeko operazioak.

Bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren azterketak, halaber, egiturazko antolamenduak proposatutako eremuen eta sektoreen urbanizazio-obren kostuak aztertuko ditu, eta kostu horiek osatzen dituzten osagarriak bereiziko ditu, Plan Orokorraren egiturazko antolamenduaren xedapenetan zein EAEko Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legean horretarako ezarritako xedapenetan finkatutakoaren arabera.

Lurzoruaren Legearen 185. artikuluaren aplikazioak izan ditzakeen ondorioek eragindako desjabetzeen aurreikuspenak ezarri beharko dira.

Azkenik, bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren azterketak txosten bat izango du eta bertan argi adierazi beharko da proposatutako plangintzaren zehaztapenak ezkutatzearen bideragarritasun ekonomikoa, bai udalaren eta gainerako administrazio publikoen (Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta, hala badagokio, Espainiako Gobernua) bideragarritasun ekonomikoaren ikuspegitik, bai ekimen pribatuarenetik, exekuzioari atxikitako eremu eta sektoreen eta sistema orokorraren exekuzioari dagokionez.

9.- Jasangarritasun ekonomikoaren memoria

Jasangarritasun ekonomikoaren memorian bereziki haztatuko da hirigintzako jarduketak eragindako

ondasunetan duen inpaktua, beharrezko azpiegiturak ezartzeagatik eta mantentzeagatik edo zerbitzuak abian jartzeagatik eta eskaintzeagatik. Halaber, lurzoruan duen inpaktua eta urbanizatu beharreko lurzorua kendu ondoren erabilera produktiboetara bideratutako lurzoruaren egokitzapena ere haztatuko dira.

10.-. Babestu beharreko elementuen eta ondasunen katalogoa

Babestu beharreko elementuen eta ondasunen katalogoak beraien balioagatik eta interesagatik babestu beharreko ondasun artifizialak zein naturalak identifikatzen ditu, hori guztia lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 76. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Aipatutako identifikazioaz gain, katalogatutako ondasunetan egin daitezkeen jarduketei buruzko arauak eta loturak zein babestutako ondasunetan eta haien inguruan egon daitezkeen balizko erabileren mugak ezarri beharko dira.

Ondasunen zerrenda hainbat kategoriatan sistematizatu beharko da, jarraian adierazitakoaren arabera:

1. Udalerriko hirigintzako ondarean integratutako ondasunak eta elementuak.
2. Udalerriko ondare arkeologikoan integratutako ondasunak eta elementuak.
3. Izaera naturaleko espazioak eta elementuak.

Aurreko banaketa osatzeko udalerriz gaindiko interesa duten ondasunak zehaztu behar dira, Eusko Jaurlaritzako Ondare Zuzendaritzak horri dagokionez ezarritakoaren arabera eta Euskadiko Kultur Ondarearen Legeak eta Euskadiko Naturaren Kontserbaziorako Legeak ezarritakoaren arabera. Bereziki erreparatu beharko zaie Eusko Jaurlaritzako organo eskudunak hala aitortu dituen edo aitortzeko prozedura hasita duten balizko Monumentu Multzoei, Monumentuei eta abar.

Udalerriaz gaindiko interesa duten ondasunek eta elementuek dagozkien hasierako eta/edo adierazpeneko espedienteetan jasotako adierazpenak, zein Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen zuzendaritzak ezarritakoak errespetatu beharko dituzte, esleitzen zaien babes-mailaren arabera.

Babestutako gainerako ondasun eta elementuak tokiko intereseko zerrendan sartuko dira, eta katalogoan, aurretik adierazitako babes-arauak ezarriko dira, Plan Orokorraren berezko xedapenen arabera.

Nolanahi ere, katalogoaren barruan dauden ondasunen eta elementuen babesari buruzko xedapen guztiak berariaz eta argi gehitu beharko dira plan orokorreko hirigintzako arauen izenburuan eta, gainera, babestutako ondasun eta elementu guztien kokapena eta kategorizazioa berariaz barne

hartzen duen plano bat egingo da.

11.- Genero-ikuspegia

Hirigintzako antolamenduan diskriminazioa eta genero-ikuspegia txertatzearen arazoa jorratzen duen atal propio bat gehituko da eta, halaber, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako politiken ezarpena ere garatuko da, hirigintzako araudian eragina izan dezaketen hautemandako eraginei eta planteatutako neurri zuzentzaileei dagokienez.

Hortaz, Plan Orokorraren barruan Inpaktuaren Ebaluazioaren prozedurari buruzko dokumentuak gehitu beharko dira, generoaren arabera, eta Gobernu Idazkaritzaren eta Parlamentuarekiko Harremanen Zuzendaritzaren 2012ko abuztuaren 21eko 40/2012 ebazpenak ezarritako terminoetan. Ebazpenak «generoaren araberako inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa egiteko eta desberdintasunekin amaitzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak txertatzeko jarraibideak onartzen dituen» Gobernu Kontseiluak onartutako akordioa argitaratzen du.

12.-. Eraikuntzako, hirigintzako eta ingurumeneko ordenantzak

Hirigintzako antolamenduaren udal-ordenantza osagarrien dokumentua idatziko da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen "Hirigintzako antolamenduaren udal-ordenantza osagarriak" izeneko 75. artikuluan ezarritako edukiaren arabera.

Aipatutako dokumentuak dokumentu mota horientzako edukiaren barruan legez sar daitezkeen hirigintzari, eraikuntzari, eraikinei eta ingurumenari buruzko beste edozein udal-ordenantza ordezkatuko du. Helburu horrekin aztertuko dira udalerrian existitzen diren mota horretako ordenantzak, araudiak ordenantza orokorren horren parte gisa gehitu ahal izateko.

Ordenantzaren edukia hiru atal handitan egituratuko da: hirigintzako ordenantzak, eraikuntzakoak eta ingurumenekoak, eta argi ezarri beharko da zein den ordenantza horien jarduketa-eremua eta maila hierarkikoa, sektoreen eta lurzoru urbanizagarriaren eta hiri-lurzoruaren antolamendu xehearen hirigintzako arauen xedapenei dagokienez.

Ordenantzaren atal independente gisa edo egokiagotzat jotzen den beste edozein formatu gisa aztertu eta arautuko da existitzen diren eraikinetara sartzeko baldintzen ezarpena, eta, hala badagokio, baita eraikin horien efizientzia energetikoa hobetzeko eta/edo jasangarritasuneko irizpideetara egokitzeko baldintzak ere.

Halaber, proposamen bat formulatuko da Plan Orokorrak eragina izan dezakeen hirigintzako arloen ordenantzentzat.

Ordenantza batzuk definituko dira ingurumena babesteko eta defendatzeko, eta ingurumeneko irizpideak gehituko dira existitzen diren ordenantzetan.

13.-. Eraginak euskararengan

Plan orokorrak Inpaktu Linguistikoaren Ebaluazioa izan beharko du, Euskadiko tokiko erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzional eta administratiboa normalizatzeari buruzko 179/2019 Dekretuaren arabera.

Hortaz, Plan Orokorrak Planaren Inpaktu Linguistikoaren ebaluazioaren prozeduraren gaineko dokumentuak izan beharko ditu, Euskadiko tokiko erakundeei buruzko 2016ko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7.7 artikuluan, Euskadiko tokiko erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzional eta administratiboa normalizatzeari buruzko 2019ko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuaren VI. Atalean eta lurralde-antolamendurako planak eta hirigintzako antolamendu-tresnak onartzeko prozeduren erregulazioari buruzko 2020ko martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren Xedapen Gehigarriko bigarren atalean adierazitako terminoetan.

Ebaluazioa plangintza-tresnetan egin beharko da, prebentzio-neurriak sartzeko. Idazketa-taldeak Inpaktu Linguistikoaren Ebaluazioari buruzko txostena idatzi eta aurkeztu beharko du.

14.- Kutsadura akustikoaren azterketa, zaraten mapa

Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzko 2012ko urriaren 16ko 213/2012 dekretuaren arabera, Plan Orokorrak Inpaktu Akustikoaren Azterketa izan beharko du tramitazioan, modu xehatuan antolatutako arlo berrientzat, 37. artikuluaren arabera.

15.- Jasangarritasun energetikoari buruzko azterketa

Lurraldearen antolamendurako tresnek, hirigintzako plangintzakoek eta garraio-azpiegiturenek jasangarritasun energetikoaren azterketa izan beharko dute, EAEko Jasangarritasun Estratagikoari buruzko 2019ko otsailaren 21eko 4/2019 Legean ezarritako terminoetan.

Plan Orokorraren kasuan, jasangarritasun energetikoari buruzko azterketa Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren prozeduraren barruan sartuko da.

16.- Zeharkako gaiak

Egungo egoeraren diagnostikoaren aurrerakinaren fasea egindakoan eta hobetzeko jarraibideak ezarritakoan, hasieran planteatutako zeharkako gai bakoitzarentzako soluzioak islatuko dira:

- Klima-aldaketa eta bere egokitzapena,
- Osasun: haurtzaroa, jarduera fisikoa, zahartzaroa.
- Familia.
- Dibertsitatea.
- Inklusibitatea.
- Larrialdiak.
- Irisgarritasuna, Mugikortasuna.
- Jasangarritasun energetikoa.
- Beste batzuk.

Fase hau egiteko epea

Idazketa-taldeak Plan Orokorraren dokumentua egiterakoan errespetatu beharreko irizpideak eta helburuak jasotzen dituen udal-hitzarmena jasotzen duenetik, **ZORTZI (8) HILABETEKO** epea ezartzen da.

Fase hori amaitzean, alkatetzarekin eta/edo gobernu-taldearekin eta ondoren Hirigintzako Batzordearekin egindako bileran, enpresa kontratistak azaldu eta entregatuko du Plan Orokorraren dokumentazio guztia.

6. FASEA: UDALEKO PLAN OROKORRAREN EDUKIAREN HASIERAKO ONESPENA ETA HERRITARREN PARTE HARTZEA

PLAN OROKORRA ONARTU AURREKO TRAMITAZIO ADMINISTRATIBOA

Plan Orokorraren dokumentazioaren lanak jasotakoan, Ingurumen Azterketa Estrategikoa barne, Uraren Euskal Agentziari txostena eskatuko zaio, Uren 1/2006 Legearen 7. artikuluan ezarritakoaren arabera.

HASIERAKO ONESPENA

Udaleko zerbitzu-teknikoek Plan Orokorraren dokumentuen edukia aztertu eta jakinarazitakoan, eta aurretik adierazitako txostenak lortzean, hala badagokio, lehen onespena egingo da.
Herritarren Parte Hartze Programan ezarritakoaren arabera, Hasierako Onespena osoko bilkurara eramango da, eta, aldez aurretik, dagokion batzorde informatiboa egingo da.

HAPOren hasierako onespenarekin bertan behera gera daitezke onespenen, baimenen eta lizentzien esleipenak, aurreikusitako xedapen berriekin indarrean dagoen hirigintzako erregimena aldatzen den arloetan.

Bertan behera uzte hori gehienez ere bi urtekoa izango da eta murriztu egingo da hasierako onespenaren aurretik, hala aukeratuta, bertan behera utzitako aldiarengatik.

PLAN OROKORRA ONARTU ONDORENGO TRAMITAZIO ADMINISTRATIBOA

Plan Orokorraren Hasierako Onespena egin ondoren, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen "plan orokorraren formulazioa eta tramitazioa" izeneko 90. artikuluan eta 2/2006 Legearen garapeneko premiazko neurrien 105/2008 Dekretuaren "hirigintzako antolamendu-planen dokumentazioko hirigintzako jarduketen inpaktua" izeneko 31. artikuluan ezarritako sektoreko administrazioen txostenak eskatuko dira.

PLAN OROKORREKO DOKUMENTAZIOAREN TRAMITAZIOAREN AURKEZPEN PUBLIKOA ETA HERRITARREN PARTE HARTZEA

Hasierako Onespena onartu osteko **HIRU (3) HILABETE** balioduneko epean zehar eta aurkezpen publikoa egiteko eta sektoreko administrazioen txostenak igortzeko epearekin bat eginez, Udalbatzak prozesu honen hasieran onartutako programan ezarritako herritarren parte-hartzea gauzatzeko jarduketa guztiak egingo dira.

Idazketa-taldeak publikoari plan orokorra azaltzeko lau azalpen-saiotan hartu beharko du parte, udalaren lokaletan eta udalaren ustez eskaintzea beharrezkoa den material dibulgatiboarekin.

Azalpen publikoak emateko saio horretan, zuzendaria, aholkulari juridikoa eta Ingurumen Azterketa Estrategikoaren arduraduna egongo dira gutxienez eta plan orokorraren edukiaren azalpen xehea egin beharko dute; ondoren publikoak egiten dizkien zalantzetan parte hartu eta horiek argitu beharko dituzte.

Aurretik adierazitako aurkezpen-saio publikoetan, idazketa-taldeak plan orokorraren dokumentazioa jarriko du aurkezpenak egiteko lokaletan eta, udalbatzak ezarritako egunetan, teknikoki kualifikatutako pertsonak egongo dira eragindako herritarrek planteatzen dituzten galderei in situ erantzuteko. Kontsultei euskaraz eta gaztelaniaz erantzuteko langile trebatuak izan beharko dira.

HASIERAKO ONESPENAREN OSTEAN AURKEZTUTAKO HELEGITEEI ERANTZUTEA ETA HERRITARREN PARTE HARTZEAREN SINTESIA

Hasierako Onespenaren ostean aurkezpen publikoa egiteko eta sektorean konpetentziak dituzten administrazioen txostenak jasotzeko epea amaitutakoan, Udalbatzak idazketa-taldeari igorriko dizkio jasotako helegite guztiak, edukiari buruzko txostena igor dezaten.

Aurkeztutako helegiteen edukiari buruzko txosten indibidualak igortzeaz gain, idazketa-taldeak herritarren parte-hartze prozesuari buruzko Laburpen Txosten bat egingo du, eta azalpen-saioetan hautemandako jazoera nagusiak jasoko ditu, txosten horiek kontuan har ditzan Udalbatzak.
Txosten indibidualak igortzeko eta herritarren parte-hartzeari buruzko Laburpen Dokumentua egiteko epea **HILABETE BATEKOA (1)** izango da, idazketa-taldeak egindako helegiteei buruzko dokumentazio guztia jasotzen duen unetik hasita.

7. FASEA: BEHIN BEHINEKO ONESPENAREN DOKUMENTUA

BEHIN BEHINEKO ONESPENA

Udalbatzak sektoreko administrazioen txostenak jasotakoan eta idazketa-taldeak helegiteei erantzun ondoren, taldeak Behin Behineko Onespena egingo du, beharrezkoak diren moldaketekin, eta baliteke Hasierako Onespen berri bat egiteko akordioa onartzea.

Aurretik adierazitako bi aukeretako edozeinetan, idazketa-taldeak dokumentu bategina egingo du, Hasierako Onespena eta Udalbatzak egindako aldaketak jasotzeko, eta plan orokorra onartzeko prozedurarekin aurrera egiteko.

BEHIN BEHINEKO ONESPENAREN TESTU BATEGINA EGITEKO EPEA

Behin-behineko onespenaren dokumentu bategina egiteko edo, hala badagokio, Hasierako onespen berrirako dokumentazioa egiteko epea **BI (2) HILABETEKOA** izango da, aipatutako txostenak jasotzen diren unetik hasita, eta **LAU (4) HILABETEKOA** bigarrenean.

8. FASEA: BEHIN BETIKO ONESPENAREN DOKUMENTUA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN TXOSTENA

Behin-behineko onespena eta bere zehaztapenak jasotzen dituen dokumentu bategina egin ondoren, udalbatzak hirigintzako espediente osoa igorriko dio EAEko Antolamenduaren Batzordeari, 2/2006 Legearen 91. artikuluan ezarritako txosten loteslea igor dezan HIRU (3) HILABETEKO epean.

EAEko Lurralde Antolamendurako Batzordeak baldintzak ezartzen baditu, berariaz adierazi beharko du plana egin ondoren ea txostena gauzatu behar den berriro edo izapidearekin jarraitu daitekeen.

INGURUMENEKO ADIERAZPEN ESTRATEGIKOAREN ESKAERA

Era berean, Plan Orokorra Behin Behinean Onartu ondoren, ingurumeneko organoari espedientearen kopia osoa igorriko zaio, Ingurumen Adierazpen Estrategikoa eskatuz, eta gehienez ere **BI (2) HILABETEKO** epean igorri beharko da espediente osoa jasotzen denetik. Ingurumeneko organoaren buletinean eta egoitza elektronikoan argitaratuko da.

BEHIN BETIKO ONESPENAREN TESTU BATEGINA

EAEko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena eta Ingurumen Adierazpen Estrategikoaren emaitza izandakoan, idazketa-taldeari igorriko zaizkio, hala badagokio, bi dokumentuetan ezarritako baldintzak betetzeko beharrezkoak diren adierazleekin. Idazketa-taldeak Plan Orokorraren Behin Betiko Onespenaren akordioa onartzeko beharrezkoa den testu bategina egin beharko du.

EPEA

Behin betiko onespenaren testu bategina egiteko epea **BI (2) HILABETEKOA** da, COTPVren txostena eta Ingurumen Adierazpen Estrategikoa jasotzen den unetik hasita. Dokumentu hori Behin Betiko Onespenaren akordioa onartu aurretik egingo da.

BEHIN BETIKO ONESPENAREN AKORDIOA ONARTZEA

Urdulizko Udalak aipatutako testu bategina igorriko dio Bizkaiko Foru Aldundiari, administrazio horrek HIRU (3) HILABETEKO epean onar dezan.

PUBLIKOKI AURKEZTEA BEHIN BETIKO ONARTU ONDOREN

Bizkaiko Foru Aldundiak Plana behin betiko onartzean, ebazpena jakinaraziko zaio udalari eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da akordioaren eduki osoa, baita hirigintzako araudia eta alderdi hauek jasotzen dituen zatia ere:

- Ingurumeneko alderdiak nola txertatu diren planean.
- Ingurumen Azterketa Estrategikoa, informazio publikoaren emaitzak eta kontsultenak nola hartu diren kontuan, eta, hala badagokio, mugaz gaindiko kontsultak eta ingurumen-adierazpen estrategikoa barne, baita prozesuan sortu diren desadostasunak ere, beharrezkoa bada.
- Kontuan hartu diren aukeretatik hautatutako aukera aukeratzean arrazoiak.
- Planaren aplikazioak ingurumenean dituen eraginen jarraipena egiteko hartutako neurriak.

Halaber, udaleko administrazioaren egoitza elektronikoan argitaratuko dira eta onartu izanaren

iragazkia herrialde historikoan zabalpen gehien duen egunkarian edo egunkarietan jarriko da. Plan orokorraren kopia osoa igorriko da foru aldundiko plangintzen erregistrora.

9. FASEA: BIDE ADMINISTRATIBOTIK JARRITAKO HELEGITEAK

BIDE ADMINISTRATIBOTIK JARRITAKO HELEGITEENTZAKO TXOSTEN TEKNIKO-JURIDIKOAK

Hirigintzako eta ingurumeneko legediari erreferentzia egiten dion HAPO argitaratu eta zabaldu ondoren, eta bide administratibotik helegiteak jartzeko legezko epea amaitu ondoren, idazketa-taldeari igorriko zaizkio aurkeztutako balizko helegiteak, edukiaren gaineko txosten tekniko-juridikoa egin dezan.

AURKEZTUTAKO BALIABIDE TEKNIKO-JURIDIKOENTZAKO TXOSTENA IGORTZEKO EPEA

Txosten hori igortzeko legez ezarritako epeak bete beharko dira eta ezingo da inolaz ere gainditu **HILABETE BATEKO (1)** gehieneko epea, aurkeztutako baliabidearen jakinarazpena egin denetik zenbatzen hasita.

HELEGITEAK BALIOETSIZ GERO, HAPO-REN TESTU BATEGINA EGITEKO EPEA

Helegiteren bat partzialki edo osorik balioestea aintzat hartuz gero, idazketa-taldeak HAPOren testu bategina egingo du eta udal-akordioaren bidez egindako zuzenketak jasoko ditu, **HIRU (3) HILABETEKO** epean zuzenketak jakinarazten direnetik hasita.

6.- FASE BAKOITZAREKIN LOTUTAKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO FORMATU

Dokumentazio guztia paperean eta digitalki aurkeztu beharko da, txostenak, aurkezpeneko eta hedapenerako dokumentuak eta abar barne.

Idatzizko dokumentazioa eta azterketa osagarriak formatu editagarrian (word, Excel edo azterketetan idazteko, erabiltzeko eta/edo analisiak egiteko beharrezkoa den beste edozein) zein PDF formatuan aurkeztu beharko dira.

Dokumentazio grafikoa formatu editagarrian, dwg-n, PDFn eta GIS formatuan (shape) aurkeztu beharko da, hala ezartzen den faseetan. Indarrean dagoen araudiak dokumentuari dagozkion baldintzak bete beharko ditu. Hiri-lurzorua, lurzoru urbanizagarria eta exekuzio-unitateak definitzeko, hiri-

lurzoruaren jarduketak edo zuzkidurak 1:1.000 eskalako gutxieneko kartografia izango du. Nolanahi ere, ezingo dira erabili indarraren dauden arau subsidiarioetakoak baino eskala txikiagoak dokumentu berrian agertzen diren informazio berdin edo antzekoentzat.

Dokumentazio guztia euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztu behar da.

Planoak ETRS89-UTM30 koordenadetara egokituko dira eta erreferentziazko oinarriak berritu eta/edo handituko dira. Koordenaden bidez identifikatuko dira udal-mugartea mugatzen duten mugarriak.
Dokumentu guztietan, hizkeraren erabilera egokia eta ez sexista bermatuko da, indarrean dauden xedapenak eta araudia betez.

Gehitu beharreko kopien kopurua hau izango da paperean eta euskarri digitalean:

1.- Ingurumeneko ebaluazio estrategikoaren prozedura hasteko dokumentua: 3 kopia gutxienez.
2.- Aurrerakinaren dokumentua, Ingurumeneko Jasangarritasun txostena barne: 3 kopia gutxienez
3.- Iradokizunak baloratzeko eta herritarren parte-hartze prozesua aztertzeko dokumentua: 3 kopia gutxienez
4.- Hasierako Onespenaren dokumentua, ingurumeneko memoria txertatzeko dokumentua barne: 3 kopia gutxienez
5.- Helegiteak baloratzeko dokumentua eta herritarren parte-hartze prozesuaren laburpen-dokumentua: 3 kopia gutxienez
6.- Behin-behineko onespenaren dokumentua: gutxienez 3 kopia
7.- Behin betiko onespenaren dokumentua: gutxienez 3 kopia

Plan Orokorra egiteko prozesuan idazketa-taldeak igortzen dituen txostenak, jarraibideak eta bestelako dokumentuak bikoiztuta entregatu beharko dira paperean eta euskarri informatikoan.

Halaber, indarrean dagoen araudiak dokumentuari dagozkion baldintzak bete beharko ditu. Hiri-lurzoruaren definizioak 1:1.000 eskalako gutxieneko kartografia izango du, lurzoru urbanizagarriak gutxieneko 1:1000 eskala eta hiri-lurzoruko exekuzio-, jarduketa- edo zuzkidura-unitateak 1:500 eskala.
Prezioaren barruan sartuko dira aleak editatzeko gastu guztiak, baita dokumentuaren ikuskapena, halakorik balego, eta lanak egiteko beharrezkoa den beste edozein gastu, esaterako, testuen euskarazko itzulpena eta mota guztietako lekualdatzeak. Altxatze kartografiko gehigarriren bat egin beharko balitz, erakunde lizitatzaileak ordainduko luke.

Gainera, idazketa-taldeak espedientearen dokumentazio grafikoaren eta idatzizkoaren bi kopia informatiko entregatu beharko dizkie Jasangarritasuneko eta Ingurune Naturaleko Sailari eta

Azpiegituren eta Lurralde Garapenaren Sailari: kopia bat lana egin den programarena izango da –ohiko programek errekonozitu dezaketen formatuan– eta, bestea, PDF formatuan.

7.- IDAZKETA TALDEAREN OSAERA.

Kontratua exekutatzeko eskatzen diren gutxieneko giza baliabideak hauek dira:

Taldeko zuzendaria.

Arkitekto titulua izatea egiaztatu beharko du. Azken 10 urteotan jarraian aipatzen diren lanetatik, plangintza orokorraren arloan taldeko zuzendari arduradun gisa gutxienez lan BAT (1) egin izana egiaztatu beharko du:

- 1 Hiri Antolamendurako Plan Orokorra
- 2 Hiri Antolamendurako Plan Orokor, biak gutxienez hasierako onespenean egonda.
- 2 Berrikuspen partzial edo aldaketa puntual.

Lan egin izana egiaztatzeko, jarduten duen administrazioak hirigintzako tresna behin betiko onartu izanaren -hala badagokio- egiaztagiria erakutsi beharko du, eta bertan agertu beharko da taldeko zuzendari edo arduradun gisa esleitutako profesionalaren parte-hartzea.

Aholkulari juridikoa

Zuzenbideko Lizentziatura titulua izatea egiaztatu beharko du.

Azken 10 urteotan jarraian aipatzen diren lanetatik, plangintza orokorraren arloan taldeko aholkulari juridiko gisa gutxienez BAT (1) egin izana egiaztatu beharko du:

- 1 Hiri Antolamendurako Plan Orokorra
- 2 Hiri Antolamendurako Plan Orokor, biak gutxienez hasierako onespenean egonda.
- 2 Berrikuspen partzial edo aldaketa puntual.

Lan egin izana egiaztatzeko, jarduten duen administrazioak hirigintzako tresna behin betiko onartu izanaren -hala badagokio- egiaztagiria erakutsi beharko du, eta bertan agertu beharko da aholkulari juridiko gisa esleitutako profesionalaren parte-hartzea.

Ingurumeneko teknikaria.

Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren eta Plan Orokorraren antolamenduaren ingurumeneko alderdien aholkularitza metodologikoaren azterketa egiteko, Biologiako, Nekazaritzako edo Basozaintzako Ingeniaritzako, Geologiako edo antzeko graduko bateko tituludun bat izan beharko da ahal dela, eta espezializatutako enpresa profesional batek ere egin dezake.

Hirigintzako plangintzarekin lotutako ingurumen-ebaluazioaren arloko 5 urteko esperientzia egiaztatu beharko da gutxienez eta "Ingurumen Inpaktuari buruzko Ebaluazio Bateratuaren Azterketa" bat, "Ingurumeneko Jasangarritasun Txosten" bat edo Hiri Antolamenduaren Plan Orokorraren edo arau subsidiarioen lehen formulazioen edo berrikuspen osoen "Ingurumen Azterketa Estrategiko" bat egin izana; gainera, proposamenak aurkezteko garaian behin betiko onartuta egon beharko dira. Berrikuspen partzialak edo aldaketa puntualak onartuko dira.

Lan egin izana egiaztatzeko, jarduten duen administrazioak hirigintzako tresna behin betiko onartu izanaren egiaztagiria erakutsi beharko du, eta bertan agertu beharko da ingurumeneko teknikari gisa esleitutako profesionalaren parte-hartzea.

Eskakizun horiek betetzeko taldeko kide berriak proposatu ahal izango dira. Beharrezko lanpostuen zerrenda horretan, pertsona bakar batek postu bat baino gehiago eduki ahal izango du, eta, hortaz, hainbat funtzio egin ahal izango ditu, Taldeko Zuzendariaren eta aholkulari juridikoaren kasuan izan ezik. Lantaldea beste teknikari edo espezialista batzuekin osatu ahal izango da, bai lanen fasean, bai puntualki faseren batean. Taldeak dokumentuak ezarritako epeetan egiteko eta editatzeko beharrezko giza baliabideak eta baliabide teknikoak eduki beharko ditu.

8.- IDAZKETA TALDEAREN BETEBEHARRAK.

Taldeko zuzendariak konpromisoa hartuko du udalak Plan Orokorra idazteko eta egiteko jarduera osoko fase eta lan guztietarako koordinatzaile edo zuzendari gisa esleitzen duen pertsonarekin aldizka harremana izateko, lan perfektuagoa eta udalaren interesen ikuspegitik osatuagoa egiteko iradokizunak jasotze aldera. Udalbatzari lagunduko dio idazteko eta tramitatzeko beharrezkoak diren bilera, bisita eta gestio guztietara. Kontratuaren esleipendunak plangintzaren aurrerakineko dokumentuak idaztean, iradokizunak baloratzean, hasierako onespenean eta behin-behineko onespenean behar den aldiro udal-bulegoetara joateko konpromisoa hartuko du bulegoaren ordutegian zehar, zerbitzuak behar bezala eskaintzeko. Gutxienez astean behin joatea aurreikusten da.

Proposamenaren barruan sartzen da lana egiteko konpromisoa eta kontratuaren exekuzio osoan zehar taldeko kide gisa proposatutako pertsonak edo enpresak kontratuari lotzea. Taldeko elementuren bat ordeztea beharrezkotzat jotzen bada, ordezkapena Udal honen aurrean proposatu eta justifikatu

beharko da. Udalak baloratuko du, eta aldaketa egokitzat jotzen badu bakarrik onartuko du, ordeztutako pertsonaren baldintza teknikoak betetzen dituelako.

Halaber, esleipendunak udaleko elkarteen ordezkariekin egingo diren bileretara joan beharko du bi aldiz gutxienez: plangintzaren aurrerakinaren fasean eta hasierako onespenaren aurretik.

9.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO BALDINTZA GISA BETE BEHARREKO HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Plegu honetako betebeharrak exekuziorako baldintza bereziak dira eta kontratuaren exekuzio-esparruaren barruan egiaztatu behar dira.

Kontratu hau bi hizkuntza ofizialen erregimenaren mende dago. Horregatik, zerbitzua eskaintzeko hizkuntzak euskara eta gaztelania izango dira.

a) Konpetentzia linguistikoa:

Kontratuaren aldi osoan zehar, zerbitzuaren erabiltzaileekin harreman zuzena izateko enpresa esleipendunak esleitzen dituen langileek gaitasuna izan beharko dute bi hizkuntza ofizialetan lan egiteko.

Eskaintzetan enplegatuen zerrenda aurkeztu beharko dute enpresek eta langileen euskararen ezagutza adierazi beharko dute.

Eskaintza egiteko garaian enpresek ezin badute enplegatuko dituzten langileen zerrenda aurkeztu, zerbitzua esleitzean, esleipendunak hizkuntza-gaitasuna duten langileak esleitu beharko ditu fidantza ordaintzeko ezarritako epean. Halaber, pertsona horien zerrenda aurkeztu beharko dio URDULIZKO udalari.

Kontratazioa egin eta gero pertsona berri bat sartzen bada zerbitzarira edo langileren bat ordezkatzen bada, enpresa esleipendunak administrazio kontratatzaileari jakinarazi beharko dio.

Ordezkapena egiten duenak edo sartzen denak eskatutako hizkuntza-gaitasuna izan beharko du. Subrogazio bidez kontratatuko langileen ordezkapenen kasuan ere baldintza hori bete beharko da, halakorik balego.

<u>Kontratu honetan zehazki:</u>
Xede-zerbitzua eskaintzean harreman zuzena izan behar da herritarrekin eta, beraz, berme guztiekin

eskaini ahal izateko, beharrezkoa da langileek egiten dituzten zereginen arabera Hizkuntzen Erreferentziazko Europako Esparruaren araberako maila izatea.
Kontratuko zereginak exekutatzeaz arduratzen diren pertsonek eta administrazioarekin eta herritarrekin harremanetan daudenek C1 mailako hizkuntza-konpetentzia izan beharko dute (edo baliokidea).

- Ahozko konpetentzia: telefonoz zein aurrez aurre informazioa erabat zuzen eta arintasunez emateko eta jasotzeko gaitasuna izan beharko dute.
- Idatzizko konpetentzia: erabateko zuzentasun gramatikalarekin gutunak, laburpenak, dokumentu luzeak eta bestelakoak idazteko gaitasuna izan beharko dute.

b) Zerbitzua eskaintzean erabiliko den hizkuntza

Enpresa esleipendunak URDULIZKO Udalean eskatzen diren antzeko baldintzetan eman beharko du zerbitzua. Kontratuaren xede-zereginak bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, prestazioaren berezko ezaugarriak direla eta, beste hizkuntza batean edo batzuetan ere egitea beharrezkoa den kasuetan salbu. Horregatik:

- Enpresa esleipendunak zerbitzuaren erabiltzaileei eskainiko dien hasierako arreta (telefono bidezkoa, erantzungailua, aurrez aurrekoa, megafonia, bilerak...) euskaraz izango da. Erabiltzaileak edozein unetan gauzatu ahal izango du hizkuntza aukeratzeko duen eskubidea.
- Idatzizko harremana herritarrekin: bi hizkuntza ofizialetan egingo dira erabiltzaileei zuzendutako komunikazioak eta jakinarazpenak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak...).

c) Paisaia linguistikoa

Enpresa esleipendunak zerbitzua eskaintzeko garaian instalatzen dituen errotuluak, abisuak, kartelak eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan egon beharko dira.

- Mezuak piktograma bidez egingo dira.
-Ezin baldin bada piktograma bat erabili, euskaraz egingo dira hitzak euskaraz eta gaztelaniaz antzekoak badira edo erabilera zabaldua duten hitzak baldin badira (udaletxea, kultur etxea...).
- Aurreko kasuak posible ez badira, bi hizkuntzetan egingo da, eta lehentasuna emango zaio euskarari, Udala ados baldin badago.

d) Administrazioari dokumentuak aurkeztea

Zerbitzua eskaintzearen ondorioz egin beharreko dokumentuak (azterketak, txostenak, proiektuak, aurrekontuak, fakturak edo beste dokumentu batzuk) bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, baita

softwareen testu- eta soinu-interfazeak ere.

e) Hizkuntza-irizpideen gaineko jarraipena

Udalak enpresa esleipendunak eskainitako zerbitzuaren gaineko jarraipena egingo du kontratua exekutatzeko fase osoan zehar, indarrean dagoen legedia betetzeko eta eskubideak bermatzeko:

10.- UDALAK EMANDAKO DOKUMENTAZIOA.

Esleipendunari udal-artxiboetan dagoen eta beharrezkoa izan daitekeen informazio guztirako sarbidea emango zaio, plangintzaren aurretiazko lanak egiteko. Organismo ofizialetan informazioa lortzeko, plangintza orokorra egokitzeko eskumena duela egiaztatzen duen egiaztagiria emango zaio.

Udalak bere mugartean indarrean dauden hirigintzako espediente guztiak zein izapidetzen ari direnak emango dizkio. Halaber, indarrean dauden arau subsidiarioei eta onartutako aldaketa puntualei buruzko dokumentazioa emango dio euskarri informatikoan.

11.- IDAZKETA TALDEAREN ETA UDALAREN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA HARREMANAK

Erakunde esleipendunak konpromisoa hartuko du udalak Plan Orokorra idazteko eta egiteko jarduera osoko fase eta lan guztietarako koordinatzaile edo zuzendari gisa esleitzen duen pertsonarekin aldizka harremana izateko, lan perfektuagoa eta udalaren interesetatik osatuagoa egiteko iradokizunak jasotze aldera. Udalbatzari lagunduko dio idazteko eta tramitatzeko beharrezkoak diren bilera, bisita eta gestio guztietara.

Udalak bere zerbitzu teknikoen bidez berrikusiko du lanaren garapena eta, horretarako, esleipendunak egoeraren berri emango dio Batzordeko presidenteak deitutako saioetan. Saio horiek udaletxean egingo dira.

Kontratuaren erakunde esleipendunak plangintzaren aurrerakinaren dokumentuak idazteko garaian, iradokizunak eta helegiteak formulatzean, eta hasierako onespenaren eta helegiteen dokumentua egitean, gutxienez publikoa artatzeko konpromisoa hartuko du udalaren bulegoetan, beharrezkoa denean.

Kontratuaren esleipendunak plangintzaren aurrerakineko dokumentuak idaztean, iradokizunak baloratzean, hasierako onespenean eta behin-behineko onespena behar den aldiro udal-bulegoetara joateko konpromisoa hartuko du bulegoaren ordutegian zehar, zerbitzuak behar bezala eskaintzeko. Gutxienez astean behin joatea aurreikusten da.

12.- DOKUMENTUAREN JABETZA.

URDULIZKO udala izango da edozein fasetan egingo diren lanen jabea eta une horretara arte esleipendunak egindako lana biltzeko eskumena izango du. Esleipendunak ezingo du kontratatutako lanaren daturik erabili berarentzat edo hirugarrengoei eman, eta ezingo du datu horien eduki osoa edo partziala argitaratu. URDULIZKO Udalak berarentzat gordeko du lanaren gaineko jabetza adimenduna eta ustiapena.

13.- ESKUBIDEEN LAGATZEA ETA ERABILERA.

Kontratu hau exekutatu bitartean egin daitekeen dokumentazioa URDULIZKO udalaren jabetzakoa izango da eta komeni zaion heinean erreproduzitu, argitaratu eta dibulgatu ahal izango du osorik edo partzialki.

Horretarako, enpresa esleipendunak azterketa horren bere ustiapen-eskubide guztiak lagako ditu modu esklusiboan udalarentzat, jabetza adimendunaren arloan aplikagarria den araudian ezarritakoaren arabera.

14.-ORDAINSARIAK

Plan Orokorra idazteko eta horrekin lotutako lanak egiteko itundutako ordainsarien gehieneko zenbateko osoa HIRUREHUN ETA LAUROGEI MILA EUROKOA (380.000 €) da, eta % 21eko BEZari dagozkion HIRUGOETA HEMERETZI MILA ETA ZORTZIEHUN EUROAK (79.800€) gehituta, LAUREHUN ETA BERROGEITA HEMERETZI MILA ETA ZORTZIEHUN EURO (459.800 €) dira guztira.

15.- ORDAINTZEKO MODUA.

Ordainketa kontratua sinatzean eta lanak partzialki entregatzean egingo da hurrenez hurren, jarraian adierazitako ehunekoetan:

1.- % 5 Herritarren Parte Hartze Programa aurkeztean.
2.- % 15 "Hirigintzako informazioa" 2. faseari dagokion dokumentazioa entregatzean eta onartzean.
3.- % 10 "Aurrerapena egitea" 3. faseari dagokion dokumentazioa entregatzean eta onartzean.
4.- % 5 "Publikoari aurkeztea, Aurrerakinaren edukiari buruzko iradokizunei erantzutea eta herritarren parte-hartze prozesuaren azterketa" 4. fasea egitean.

5.- % 35 "Plan Orokorra egitea" 5. faseari dagokion dokumentazioa entregatzean eta onartzean.

6.- % 8 "Hasierako onespena, publikoari aurkeztea, Plan Orokorraren edukiari buruzko helegiteei erantzutea eta parte-hartze prozesuaren azterketa" 6. faseari dagozkion lanak entregatu eta onartzean.

7.- % 10 "Behin Behineko Onespenerako Dokumentua" 7. faseari dagokion dokumentazioa entregatzean eta onartzean.

8.- % 10 "Behin Betiko Onespenerako testu bategina" 8. faseari dagokion dokumentazioa entregatzean eta onartzean.

9.- Gainerako zenbatekoa bide administratibotik plana behin betiko onartzearen aurka jarritako balizko helegiteen berri ematean edo helegiteak jartzeko epea amaitzean ordainduko da.

Legezko hiru epetan ordainduko da, fakturek teknikarien eta dagokien politikarien onespena dutenean.

16.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK.

Kontratazio-espedientea prozedura ireki bidez esleituko da. Zerbitzuen kontratua da.

Kontratazio-organoak kontratua esleituko du irizpide objektibo hauek kontuan izanda. Irizpideak garrantziaren araberako beheranzko ordenan daude eta 100 puntura arteko dagokien haztapenarekin.

FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU DAITEZKEEN ALDERDIAK HAUTEMATE AUTOMATIKOA (52 puntura arte)

1.- Proposamen ekonomikoa: 37 puntura arte

Eskaintza ekonomikoa Kontratu osoa exekutatzeko eskainitako prezioa: 37 puntu gehienez ere (3. artxibo elektronikoan gehitu behar da).

Eskaintza ekonomikorik onena -baxuena diruari dagokionez- egiten duen enpresak HOGEITA HAMAZAZPI (37) PUNTU lortuko ditu gehienez ere, eta gainerako enpresek formula honen araberako puntuazio proportzionala jasoko dute:

$$\text{Puntuazioa} = \frac{37 \times \text{Eskaintzarik merkeenaren prezioa}}{\text{Ebaluatutako eskaintzaren prezioa}}$$

Aukeratutako formularen lehen emaitza benetako eskaintza ekonomikoa da, eta, hain zuzen ere, irizpide ekonomikoa haztatzen da, disfuntzio proportzionalik gabeko konputu osoan eta amaierakoan.

Emaitza negatiboa bada, ZERO (0) puntu esleituko dira.

Oharra: BEZa ez da kontuan hartzen balorazioan

2.- Jardunarekiko konpromisoa: 15 puntu arte

Konpromisoa hartzea lantalde esleipenduneko pertsona batek, arkitekto batek, gutxienez honako lanaldi hau egingo duela udal-bulegoetan, herritarrek parte hartzeko 4. eta 6. faseak (5 hilabete) egiteko lanetan:

- 160 ordu (astean 8 orduko lanaldiaren baliokidea) – 5 puntu
- 200 ordu (astean 10 orduko lanaldiaren baliokidea) -10 puntu
- 240 ordu (astean 12 orduko lanaldiaren baliokidea) -15 puntu

FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU EZIN DIREN ALDERDIAK BALIO JUDIZIOAREN ARABERAKOAK (48 puntu gehienez ere).

1.- Metodologiaren proposamena: 28 puntu arte.

Horretarako, lanak egiteko plan bat egingo da eta honakoa jaso beharko du:

a) Lanetan erabiliko den metodologia azaltzen duen memoria (udal barruan eta kanpoan egin beharreko lanen antolaketa, koordinazioa azpikontratatutako enpresekin, kudeaketa sektorean eskumenak dituzten organismoekin, etab.), lizitatzaileak egiteko konpromisoa duen lan bakoitzaren definizio argi eta zehatzarekin, herritarren parte-hartzea barne. (24 puntu)

Gutxienez alderdi hauek adieraziko dira:

- HAPOn genero-ikuspegia txertatzeko metodologia eta kontratatutako enpresaren berdintasun-politiketako jardunbide egokia.
- Baliabide naturalen aprobetxamendu jasangarria sustatzeko eta bultzatzeko proposamenak.
- Planaren zehaztapen handiagoko proposamena, bere garapena ondorengo planetan ez delegatzeko.
- 1. FASEAN ezarritakoa osatzen duten herritarren parte-hartzerako proposamenak eta mekanismoak: Plegu teknikoko HERRITARREN PARTE HARTZE PROGRAMA
- Kontratazio horren parte izango den lantaldearen egitura osatzea.

Esku hartu behar duen giza lantaldearen deskribapena, hala badagokio, azpi-kontratatzea aurreikusten duten kontratuaren zatia adierazita, ehunekoa adieraziz eta azpi-kontratistaren izena edo

enpresa-profila identifikatuz, faseen arabera zehaztuta.
Dokumentuak dokumentazio grafikoa eta idatzizkoa eduki ahal izango du. Gehienez ere 10 orri eduki ahal izango ditu 2 aldetatik, gutxieneko letra tamaina Arial 10 izango da eta A4ko formatua. Elementu grafiko edo taularen bat argiago adierazteko asmoz orri handiago bat behar bada, gehienez ere 2 orri A3 tamainakoak izan daitezke. Orrien edo finkatutako elementuen gehieneko kopurua gainditzen duten 5 orrialdeko, edo zati edo plano bakoitzeko, -2 puntu kenduko dira.

b) Exekuzioaren egutegi osoa, plegu honetan ezarritako epe partzialekin bateragarria. Atal honetan, askotariko lanak exekutatzeko epe partzialen programazioa eta estimazioa baloratuko da, eta programatutako lanen hilabeteko eta pilatutako estimazioa egingo da, plegu honen barruan dauden lanak hobetzeko eskaintza metodologikoari dagokionez (4 puntu).

Dokumentuak dokumentazio grafikoa eta idatzizkoa eduki ahal izango du. Gehienez ere 4 orri eduki ahal izango ditu 2 aldetatik, gutxieneko letra tamaina Arial 10 izango da eta A4ko formatua. Elementu grafiko edo taularen bat argiago adierazteko asmoz orri handiago bat behar bada, gehienez ere 2 orri A3 tamainakoak izan daitezke. Orrien edo finkatutako elementuen gehieneko kopurua gainditzen duten 5 orrialdeko, edo zati edo plano bakoitzeko, -2 puntu kenduko dira.

2.- Memoria diagnostikoa. 20 puntura arte.
Alderdi hauek baloratuko dira:

- Egungo egoeraren azterketa, arazorik esanguratsuenak adieraziz. Atal honetan udalerrian ebatzi gabe dauden arazoak, gabeziak, kontraesanak edo udalerriko araudian ebatzi beharreko beste alderdi batzuk hautematea baloratuko da (4 puntu).
- Datozen urteetarako kontuan izan beharreko proposamenak eta jarduketen jarraibideak, bai dagoeneko garatuta dauden arloetan, bai garatzeke daudenetan edo urbanizagarriak ez direnetan (4 puntu).
- Udalerriaren egoera aplikagarriak diren udalerriaz gaindiko araudien ikuspegitik (4 puntu).
- Koherentzia egungo egoeraren eta proposamenen azterketaren eta planteatutako jarduketa-jarraibideen artean (4 puntu).
- Alderdi sozialetan eta ingurumenekoetan sakontzea (4 puntu), besteak beste:
    - Udalerriaren, landa-bideen, eraikin historikoen, basoen eta abarren ezagutza piztu eta sustatzen dutenak.
    - Mugikortasuna eta osasuna hobetzera bideratutako alderdiak kontuan hartzen dituztenak.
    - Landa-eremua hobeto integratzeko proposamenak eta soluzioak ematen dituztenak, existitzen den lurzoruaren ekoizpenaren eta udalerriko baserrien bizigarritasunaren ikuspegitik.


Aurkeztu beharreko dokumentuak dokumentazio grafikoa eta idatzia eduki ahal izango du. Gehienez

ere 10 orriko dokumentu idatzi bat aurkeztu ahal izango da 2 aldetatik, Arial 10 tamainako letrarekin gutxienez eta A4 formatuan. Gainera, 8 plano gehitu ahal izango dira.

Planoetarako gehieneko tamaina A0 izango da. Orrien edo finkatutako elementuen gehieneko kopurua gainditzen duten 5 orrialdeko, edo zati edo plano bakoitzeko, -2 puntu kenduko dira.

Artxibo horren barruan ez da inolaz ere eskaintza ekonomikoa sartu beharko, ezta eskaintza ekonomikoaren dokumentu esanguratsuak ere, esaterako, hobekuntza puntualena. Horiek sartuz gero prozeduratik baztertuta gera daiteke.

Alkatea



2024.06.04
10:05:13
+02'00'